# iRAKURRi, ETA ONDO PASA!




**LIBURUA**

## 'Nur eta haize-arrosa'

Ezusteko oparia jaso du Nurrek, aitona-amonen etxera joan denean: etxetxo bat egin dio lorategian aititek. Eta, etxetxoaren ondoan, lau puntu kardinalak adierazten dituen biribil handi bat markatu du lurrean: haize arrosa bat. Aurkikuntza ederra izan da! Irudimen handiko neska da Nur. Horri esker, Ipar burura bidaiatu du bere lagunekin, eta abentura zirraragarria izango dute. Nur bildumako zazpigarren liburua da.

**Toti Martinez de Lezea**
**Juan Luis Landa**
Argitaletxea: **Erein**




**LIBURUA**

## 'Izan amets handi, Lili txiki!'

Izarra izan nahi du Lili txerritxoak. Izotz gainean irristatzen ibiltzea zoragarria dela konturatzean, bere buruarengan sinesten hasten da. Argi du: irristatze pistako izarra izan nahi du handitzean. Yamaguchi Olinpiar Jokoetako urrezko domina eta munduko izotz gaineko patinatzaile txapelduna da egilea. Liburua amets handiak izaten laguntzeko inspirazio iturri izatea nahi du egileak.

**Kristi Yamaguchi**
**Tim Bowers**
Argitaletxea: **Mezulari**

**DENBORA-PASAK**





## 1. Kopiatu laukiz lauki

Zuzendariak erretiroa hartuko duela eta, marrazki bat egin diote ikasleek. **Marraztu irakaslea, hutsik dagoen laukian.**

## 2. Bikiak

Erosketak egiteko orga berria erosi du amak. Azokara joan, eta orga berdina topatu ez du, ba. **Zein dira berdinak?**




**Erantzunak**

**2.-** A eta H.